

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3621

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearena, Unibertsitateko Masterrak Gestionatzeko Arauak argitaratzeko dena.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituen, 2007ko urriaren 30ean eman zen argitara eta hurrengo egunean sartu zen indarrean. Dekretu horren helburua da unibertsitateko ikasketa ofizialen egitura garatzea, betiere Europako Unibertsitate Eremuaren ildo orokorren arabera.

Dekretu hori unibertsitateetako master ofizialei ere badagokie.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko abenduaren 22ko bileran onartu zuen UPV/EHUko masterrak ikastegietara atxikitze proposamena, bai eta Master eta Doktorego Eskola sortzekoa ere.

2012ko apirilaren 26an argitaratu zen EHAAn Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko martxoaren 27ko Agindua, Euskal Herriko Unibertsitateko Master eta Doktorego Eskola sortzea onartzen duena.

Master eta Doktorego Eskola abian jarrita dagoenez, eta asko direnez unibertsitateko masterrak atxikita dauzkaten ikastegiak, egoki ikusi da Master Ofizialak Gestionatzeko Arauak aldatzea, egitura berriaren premietara moldatzeko.

UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak onartu du, 2014ko ekainaren 25eko bileran, aldatzea Master Ofizialak Gestionatzeko Arauak.

Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2014ko uztailaren 10ean egindako bileran, Unibertsitateko Master Ofizialak Gestionatzeko Arauak onartu zituen.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, ondokoa dio 10.2 artikuluan: «Antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu organoek emandako estatutuak eta arauak, baita horien gaineko aldaketak eta orokorrean aplikatzekoak diren xedapenak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.»

Hori guztia kontuan hartuta, hau

2014ko abuztuaren 26a, asteartea

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Unibertsitateko Master Ofizialak Gestionatzeko Arauak, eranskinean jaso bezala.

Leioa, 2014ko uztailaren 11.

Errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Eskuordetzeaz (2013-01-30 Ebazpena, 2013-02-13 EHAA).

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen Arloko errektoreordea,
NEKANE BALLUERKA LASA.

GRADUONDOKO IKASKETEN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO
ERREKTOREORDETZA

UNIBERTSITATEKO MASTERREN GESTIORAKO ARAUTEGIA

I. KAPITULUA

IZENA EMATEA, HAUTAKETA ETA MATRIKULA

I. ATALA

SARBIDEA, IZENA EMATEA ETA HAUTAKETA

1.artikulua.– Sarbidea.

1.– Unibertsitateko master ofizialetako ikasketetara sartzeko, unibertsitateko titulu ofizialen bat izan behar da. Titulu hori Europako Unibertsitate Eremuko goi mailako hezkuntzako erakunderen batek emana izan behar da eta masterreko ikasketetarako sarbidea eman behar du titulua eman duen herrialdean.

2.– Bestalde, Europako Unibertsitate Eremutik kanpoko tituludunak ere sartu ahal izango dira titulua homologatu barik, baldin eta unibertsitateak egiaztatzen badu titulu horren bidez lortutako prestakuntza eta Espainiako unibertsitateetan pareko titulu ofizialean eskuratutako maila berekoak direla, eta herrialde hartan titulu horrek graduondoko ikasketetara sartzeko aukera ematen duela. Modu horretan sartzek ez du esan nahi titulua homologatzen denik: unibertsitateko masterra egiteko baino ez zaio onartuko, hau da, ez du bestelako ondorioz izango.

2. artikulua.– Master ofizialean onartua izateko baldintzak.

UPV/EHUko unibertsitate masterretan onartua izateko, ondoko baldintzak bete behar dira:

Graduatua, lizentziatua, ingeniaria, arkitektoa, diplomatua, arkitekto teknikoa edo ingeniari teknikoa izatea.

Master ofizialaren proposamenean ezarritako baldintza bereziak betetzea.

Unibertsitateko masterrean onartua izatea arautegi honetako 3–5 artikuluetan zehaztutako prozedurari jarraituz.

3. artikulua.– Izena ematea: ikasleak hautatzea eta dokumentuak aurkeztea.

1.– Master ofizialetan matrikula egiteko prozesua baino lehen, izena emateko epea irekiko da. Izena emateko prozesuan ikasleak hautatzeko ezarriko diren irizpideak master ofizial bakoitzerako zehaztutakoak izango dira, arautegi honetako 5.1 artikuluan jasotakoari jarraituz.

2.– Masterraren arduradunak emango ditu argitara irizpideok web orrian eta masterra irakatsiko duen ikastegiaren, sailaren edo institutuaren iragarki oholean, eta bertan egongo dira jarrita eska-riak aurkezteko epea amaitu artean. Masterraren arduradunak, era berean, ikastaroak noiz eta non emango diren argitaratuko du, bai eta eskolen ordutegia ere.

3.– Izena emateko epea, prozedura eta aurkeztu beharreko agirien zerrenda UPV/EHUren web orrian argitaratuko dira, bai eta ikastegietako idazkaritzetan ere.

4. artikulua.– Titulu homologatu gabea daukaten ikasleek ez dute zertan homologatu titulua master ofizialetako ikasketetara sartzeko. Halakoetan, titulua legeztatuta egon beharko da eta titulua bera eta gainerako dokumentuak EAEko hizkuntza ofizialetako batera itzulita aurkeztu (itzulpena ofiziala izan behar da) Masterra ingelesez ematen bada, ez da eskatuko dokumentazioa itzultzea, baldin eta ingelesez badago.

Aurkeztu beharreko agirien zerrenda UPV/EHUren web orrian argitaratuko da, bai eta ikastegiek zehaztutako idazkaritzetan ere.

Europako Unibertsitate Eremutik (EUE) kanpoko atzerriko titulu homologatu gabea daukaten ikasleak onartzeko, beharrezkoa izango da Graduondoko Batzordearen onespena.

Master bakoitzaren arduradunak Graduondoko Batzordera bidali beharko du EUetik kanpoko atzerriko titulu homologatu gabea daukaten eta masterreko Batzorde Akademikoak onartu dituen ikasleen dokumentazioa, eta horrekin batera ikasleok onartzeko arrazoiei buruzko txostena. Izena emateko epea bukatu eta 10 eguneko epean bidali beharko da dokumentazioa.

5. artikulua.– Merituak baloratzea eta hautatutako ikasleen zerrendak argitaratzea.

1.– Master bakoitzeko batzorde akademikoak hautatuko ditu ikasleak, unibertsitateko masterra arrazoitzeko memorian meritua ebaluatzeko zehaztuta dauden irizpideak kontuan hartuta, eta Unibertsitateko masterrak osatu eta onartzeko prozedurari buruzko arautegiaren babesean.

2.– Hautatutako ikasleen zerrendak argitaratzea:

Ikasleak hautatzeko prozesua behin bukatuta, master ofizialaren arduradunak gestio hauek egin beharko ditu:

Ikasle onartuen eta ez onartuen behin–behineko zerrendak argitaratu, ikasleak onartzeko epea bukatu eta, gehienez ere, 5 lan eguneko epean.

Erreklamazioak aurkezteko epea ezarri (gehienez ere hurrengo 4 lan egunetan).

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo sei lan egunen barruan, ikasle onartuen behin betiko zerrenda argitaratu. Gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio errektoreari behin betiko zerrenden kontra, zerrendak argitaratu eta biharamunean hasiko den hilabeteko epearen barruan.

Onartutako ikasle bakoitzari tutore bat jarriko zaio, masterreko irakasleen artetik aukeratua. Tutore horrek zehaztuko du ikasle bakoitzak egin beharreko ikasketa plana. Horrez gain, jarraibideak eta aholkuak emango dizkio, bai ikasketetarako, bai lanerako.

Masterrean onartua izateko, dena dela, ezinbestekoa izango da matrikula egitea.

II. ATALA

MATRIKULA ETA PREZIO PUBLIKOAK

Unibertsitateko masterrean onartutako ikasleek matrikula egin beharko dute Graduondoko Batzordeak ikasturte bakoitzerako onartutako egutegiari jarraituz, eta ikasturte osoan egin nahi dituzten irakasgai guztiak sartu beharko dituzte. Master bakoitzaren memorian egongo da zehaztuta ikasle bakoitza gutxienez zenbat kreditutan matrikulatu behar den.

6. artikulua.– Matrikula egiteko prozedura.

Master eta Doktoregoko Atalak ezarritako prozedurari jarriki egingo da matrikula. Aurkeztu beharreko agirien zerrenda UPV/EHUren web orrian argitaratuko da, eta ikastegi arduradunek zehaztutako idazkaritzetan.

28 urtetik beherako ikasle guztiei eskola aseguru kobratuko zaie. 28 urtetik gorako ikasleek, berriz, aseguru egin beharko dute nahitaez. Unibertsitateak borondatezko aseguru dauka kontratatuta, horren beharra izan dezaketen ikasleentzat. Aseguru hori kontratatu nahi duten ikasleek zuzenean jo behar dute kasuan kasuko aseguru etxera.

Matrikula aldatu nahi izanez gero, eskari arrazoitua aurkeztu beharko da, eta masterreko tuto-reak eta arduradunak baimendu beharko dute. Baimena lortu ezean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio masterreko batzorde akademikoari, eta hark ere baimena ukatuz gero, UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari. Aldaketak ikasturte bakoitzeko abenduaren 31a baino lehen egin behar dira eta aldatu nahi den irakasgaiko eskolak ezin izango dira hasita egon.

7. artikulua.– Matrikula egiteko egunak.

Batzorde akademikoak hala proposatzen badu, bi epe egongo dira matrikula egiteko. Graduondoko Batzordeak onartu beharko ditu haien egutegiak. Lehenengo epea ikasturtea hasi aurretik irekiko da, eta bigarrena, berriz, bigarren lauhilekoa hasi baino lehen. Bigarren epea matrikula berrietarako baino ez da izango, eta ezin izango da inolaz ere erabili irakasgai gehiagotan matrikulatzeko edo matrikulan aldaketak egiteko.

Aparteko kasuetan, eta behar bezala arrazoituta, baimena eman ahal izango zaio ikasleren bati epez kanpo egiteko matrikula.

Onartutako ikasleak berresteko epea behin amaituta, Master eta Doktoregoko Atalak zenbat ikasle berretsi diren jakinaraziko dio Graduondoko Batzordeari. Doktoregoko Azpibatzaordeak berretsitako gutxieneko kopurua ezarri ahal izango du matrikulako epea ireki eta masterra emateko baimena eman ahal izateko.

Azken bi ikasturteetan 10 ikasle baino gutxiago izan dituzten masterrak UPV/EHUren eskaintzatik kanpo gera daitezke. Unibertsitate arteko masterretan, sare osoko ikasleak hartuko dira kontuan.

Jarduera akademikoa ez da hasiko matrikula egiteko epea bukatu arte.

8. artikulua.– Matrikularen zenbatekoa eta ordaintzeko era.

1.– Ikasleek unibertsitateari ordaindu beharrekoa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasturte bakoitzerako zehaztutakoa izango da.

2.– Prezio publiko murriztuak ordaintzeko edo prezioak ordaintzetik salbuetsita egoteko eskubi-dea izateko, matrikula egiteko epearen barruan bete beharko dira horretarako baldintzak.

3.– Ikasleak epeka ordaintzea erabakiz gero, Eusko Jaurlaritzak prezio publikoei buruzko aginduan zehaztutako epeak errespetatu beharko ditu.

4.– Bigarren matrikulaldian eta beka ukatzen denean, matrikula ezin izango da zatika ordaindu.

5.– Beka eskatuta izateagatik matrikula ordaindu ez dutenek, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko goi mailako zerbitzu publikoengatik ordaindu beharreko prezio publikoak zehazteko xedez Eusko Jaurlaritzak emandako aginduari jarraitu beharko diote.

6.– Eskola aseguru, ikaslearen txartela eta gainerako administrazio tasak epe bakarrean ordainduko dira (matrikula egiterakoan).

7.– Kredituak onartzeko, kontuan hartuko da arautegi honetako II. kapitulua. Dena dela, kreditu horiei dagozkien prezioak ordaindu egin beharko dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasturte bakoitzerako ezarrikoari jarraituz.

8.– Matrikulak behin–behinekoz onartuko dira. Matrikula aurkeztu denetik hiru hilabete igaro eta ez bada hartu Master eta Doktoregoko Atalak matrikularen kontra egindako erabaki edo jakinarazpenik, matrikula onartu egin dela ulertuko da.

9.– Matrikula ordaindu ez duten ikasleak unibertsitatearen zordun izango dira. Halaxe jasoko da erabaki batean, eta horren berri emango zaie interesatuei jakinarazpen baten bidez. UPV/EHU-rekin zorrak dituztenek ezingo dituzte erabili unibertsitatearen zerbitzuak, bereziki honako hauek: ezingo dute egin beste ikasketarik, ez zaie emango titulurik edo ziurtagiririk, ezta espediente akademikoari buruzko informaziorik ere, eta ezingo dute egin beste matrikularik. UPV/EHUri zor dioten dirua ordaindu bezain laster berreskuratuko dituzte eskubideok.

9. artikulua.– Matrikula motak eta prezio publikoak ordaintzetik salbuetsita egotea.

Matrikulagatik ordaindu beharreko zenbatekoa ikasle bakoitzaren baldintzen arabera izango da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prezio publikoak ezartzeko ikasturte bakoitzean emandako aginduari jarraituz.

Graduko azken urtean ohorezko matrikularen bat atera duten UPV/EHUko ikasleek, hurrengo urtean UPV/EHUko master ofizial batean matrikulatzen badira, deskontua izango dute matrikulan, hain zuzen ere, ohorezko matrikula atera duten kreditu kopurua ez zaie kobratuko. Prezioaren murrizpen bera aplikatuko zaie maila bat baino gehiago dauzkan master ofiziala egiten duten ikasleei.

10. artikulua.– Matrikula baliogabetzea.

1.– Aurkeztutako matrikulak ordaintzen diren unean hartuko dira onartutzat, eta behin hiru hilabete igarota Master eta Doktoregoko Batzordeak matrikularen kontrako erabakirik edo jakinarazpenik eman barik, matrikula behin betikoa izango da eta irmoa ondorio guztietarako.

2.– Maiatzaren 29ko 13/1998 Legeak, EAEko Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoak, zehaztutakoaren arabera, nahiz eta ikasleek legeak agindutako epe eta moduan eskatu matrikula baliogabetzea, ez dituzte, inolaz ere, ordaindutako prezio publikoak berreskuratuko, 11. artikuluan adierazitako kasuetan izan ezik.

3.– Unibertsitateak matrikula onartzen ez badu, erabaki arrazoitua eman beharko du, eta kasu horretan baino ez da itzuliko ordaindutakoa. Matrikula ez onartzeko erabakiaren kontra gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko errektoreari edo errektorearen eskumenak eskuordetuta dituen aginteari.

Kasu hauean baliogabetuko da matrikula:

Ikasleak matrikula egiteko eskatzen den baldintzaren bat betetzen ez duenean: eskakizuna egingo zaio interesatuari hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo gainerako tramiteak bideratzeko, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, 71.1 artikuluan jasotakoari jarraituz.

Interesatuak horrela eskatzen badu abenduaren 31 baino lehen, baina ordaindutako dirua 11. artikuluan jasotako kasuetan baino ez zaio itzuliko.

Matrikula baliogabetzeko eskaria egin duten ikasle berriek berriro eman beharko dute izena ikasketa horiek egin nahi izanez gero.

Ikasle bekadun moduan matrikulatzeko, bekaren deialdian eskatzen diren baldintza akademi-koak matrikula egiterakoan bete beharko ditu ikasleak, eta aurretik beka–eskaera egina eduki beharko du. Matrikulatzerakoan beka–eskaeraren agiria aurkeztu beharko du, matrikulatzeko behar diren beste dokumentuekin batera. Bestela, ordaindu egin beharko ditu matrikulako irakasgaien prezioak, nahiz eta horrek ez duen eragotziko beka eskatzea.

Hala ere, ikasle batek eskakizun akademikoak betetzeagatik bekadun moduan egin badu matrikula eta ondoren beka ukatu egin bazaio eta ukoa jakin ondoren matrikula baliogabetzea eskatzen badu, ikasle hori ez da zorduntzat hartuko.

11. artikulua.– Tasa eta prezio publikoak itzultzea.

Salbuespen hauetan itzuliko dira prezio publikoak:

1.– Matrikula administrazioak bere kabuz baliogabetzen duenean, baldintzaren bat betetzen ez duelako, eta hori zuzentzea ezinezkoa denean.

2.– Ordaindutako zenbatekoa handiagoa denean indarreko prezioa baino, kalkulu errore bategatik edo behar ez den kobrantza egin delako, ikasleak horren erantzukizunik ez duela.

3.– Ordaindu dutenek eskubidea dutenean ordaintzetik salbuetsita egoteko, beka eskaria onartu zaielako, edo diru laguntza edo salbuespenen baten onuradun direlako, baldin eta eskaria legezko epean eta eran egi badute, ikasturte bakoitzerako prezio publikoen aginduan ezarritakoari jarraiki.

4.– Ikasleari onesten zaizkionean irakasgaiak baliozkotu edo aitortzeko eskariak, aurretik ordaindu baditu.

5.– Ikasleak eskatzen duenean matrikula baliogabetzeko eta dirua itzultzeko ikasturtea hasi aurretik; kasu horretan itzuliko zaizkio matrikulatutako, aitortutako edo baliozkotutako kredituen zenbatekoak.

6.– Ikasturteko edozein unetan, ikasleak ezin badu ikasten jarraitu salbuespenezko, ustekabeko eta behar bezala justifikatutako egoera bat sortu delako, adibidez gaixotasun fisiko edo psikiko luzea; ikaslea bera edo berarekin lehen mailako odolkidetasuna daukan senidea hiltzen bada; ikaslea bera lanean hasten bada eta lanaren ordutegia bateraezina bada ikasketekin; edo egoera horien parekoa den beste edozein sortzen bada ustekabean. Dirua itzultzeko eskaria unibertsitateko erregistroan aurkeztu beharko da, salbuespenezko egoera egiaztatzen duten agiriekin batera. Kasu honetan ebaluatu ez diren irakasgaiak baino ez dira baliogabetuko.

12. artikulua.– Eskola aseguruak.

1.– UPV/EHUko graduondoko ikasketa ofizialetan matrikulatuko diren ikasle guztiek ordaindu beharko dute eskola aseguruak. Eskola aseguruak 28 urtera arte babesten ditu ikasleak.

2.– Eskola aseguruak atzerriko ikasleak ere babesten ditu, baldin eta kasuan kasuko herrialdearekin elkarrekikotasun hitzarmena eginda badago, adierazi gabe edo beren–beregikoa.

13. artikulua.– Borondatezko aseguruak.

Unibertsitateak borondatezko aseguruak dauka kontratatuta, horren beharra izan dezaketen ikasleentzat. Aseguru hori kontratatu nahi duten ikasleek zuzenean jo behar dute kasuan kasuko aseguru etxera.

II. KAPITULUA

KREDITUAK AITORTZEA ETA KREDITUEN TRANSFERENTZIA

14. artikulua.– Definizioa.

Kredituak aitortzea da unibertsitateak ontzat hartzea unibertsitate berean edo beste batean egindako ikasketa ofizialen bidez lortutako kredituak, kontuan har daitezzen beste ikasketa batzuetako titulu ofiziala lortze aldera. Era berean, lizentziatura, ingeniaritza, arkitektura, diplomatura, ingeniaritza tekniko eta arkitektura teknikoetan lortutako kredituak ere aitortu ahal izango dira.

15. artikulua.– Eragina.

Kredituak aitortuz gero, ikasleak titulazioan eskatutako kredituak osatzeko falta duen kreditu kopurua baino ez du egin beharko.

16. artikulua.– Irizpide orokorrak.

Aitortuko den unitatea irakasgaia izango da, gainditutako kredituei dagozkien gaitasunen araberak. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleak behar besteko informazioa aurkeztea eskatuko dituen kredituen ikasketa planeko gaitasunen inguruan, arautegi honetako 16. artikuluari jarraiki. Halaber, masterretako batzorde akademikoek kredituen aitorten eskaerei buruzko txostenetan, gaitasun eta edukien arteko antzekotasuna hartuko dute aintzat, eta ez irakasgaien edukien eta kreditu balioaren arteko parekotasuna. Ezin izango dira irakasgai zatiak aitortu. Nahitaezko eta hautazko irakasgaien bidez edo kanpoko praktiken bidez lortutako kredituak aitortu ahal izango dira, betiere, izaera, helburu eta gaitasunak antzekoak badira. Ez dira aitortuko master amaierako lanengatik lortutako kredituak.

Hitzarmen espezifikoen bitartez araututako unibertsitate arteko ikasketa bateratuei dagokieenez (mugikortasuna edo titulazio bateratuak), hitzarmenetan ezarritakoa beteko da, betiere, UPV/EHUko arautegiaren kontrakoa ez bada.

Irakasgaien aitorpenerako jarraibide propioak dauzkaten masterretan jarraibide horiek aplikatuko dira.

Irakasgaiak bere osotasunean aitortzeaz gain, egiaztatutako lan esperientzia eta esperientzia profesionala ere aitortu ahal izango dira titulu ofiziala lortzeko, betiere, esperientzia horrek zerikusia badauka lortu nahi den tituluari dagozkion gaitasunekin.

Lan esperientziagatik edo esperientzia profesionalagatik eta unibertsitateko ikasketa ez ofizialengatik gehienez ere ikasketa planeko kredituen % 15 aitortu ahal izango dira guztira. Kreditu horiek ez dute kalifikaziorik izango, eta, beraz, ez dira kontuan hartuko espedientea barematzera-koan.

Horiek gorabehera, aparteko kasuetan, berezko tituluetan lortutako kredituak aitortu ahal izango dira goiko paragrafoan adierazitako ehunekoan baino kopuru handiagoan, edo baita osotasunean ere (hau da, kreditu guztiak), baldin eta berezko titulua desagertu egin bada eta haren ordeztutako titulu ofizial bat ezarri.

Masterreko batzorde akademikoak kreditu kopuru bat emango dio ikasleek aurkeztutako unibertsitatetik kanpoko prestakuntzari, kontuan hartuta prestakuntzaren edukiak eta lortutako gaitasunak. Kreditu horiek ikaslearen espedientean agertuko dira, aitortutako kreditu moduan. Prozedura honi jarraituz gehienez ere titulazioko kredituen % 15 aitortu ahal izango dira.

17. artikulua.– Kredituak aitortzeko prozedura.

Kredituak aitortzeko prozedura hasteko, ikaslea masterrean matrikulatuta egon behar da eta master horretarako baino ez zaizkio aitortuko kredituak, aitortzekotan. Matrikulatu ondoren, ikasleak urrats hauek eman beharko ditu erakunde ofizialetan edo izen handikoetan egindako ikastaro edo lanen aitortpena lortzeko:

Tramitazioa:

Ikasleak masterreko batzorde akademikoari zuzenduko dio kredituak aitortzeko eskaria. Horretarako epea hilabetekoa izango da eskolak hasten direnetik, eta dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

Eskaria, behar bezala beteta.

Ziurtagiri akademiko pertsonala, edo kopia eta jatorrizkoa, erkatzeko.

Egindako ikastaroaren edo irakasgaiaren programa, edo graduondoko jardueraren xehetasunak.

Kredituak aitortzeko eskaerak ikusita, masterreko batzorde akademikoak aitorten proposamena aurkeztuko dio masterraren ardura duen ikastegiko aitorten batzordeari, hilabeteko epean. Horretarako, espedienteko dokumentu guztiak bidali beharko dizkio batzordeari.

Ikastegiko aitorten batzordeak eskariei buruzko erabakia hartu, eta jakinaren gainean jarriko ditu bai masterreko batzorde akademikoa eta bai ikaslea. Erabaki horretan jasota ageri beharko da zein kreditu aitortu den eta zein ez. Aitortu ez diren kredituen kasuan, arrazoiak azaldu beharko dira.

Ikastegi bakoitzeko aitorten batzordearen erabakien aurka, interesatuek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean.

Kredituak aitortzeko eskaerari buruzko erabakian honakoak jaso behar dira:

Aitortuko diren kredituen kopurua, eta zein irakasgaitatik datozen.

Ikasketa planeko zein irakasgai aitortuko zaizkion ikasleari.

Lan arloko esperientziagatik edo esperientzia profesionalagatik eta unibertsitateko berezko tituluengatik aitortuko den kreditu kopurua.

Kredituak aitortzeko eskaria ukatuz gero, azaldu egin beharko dira arrazoiak.

Ikasleak aitorten bidez gainditzen dituen kredituak aitortu gisa azalduko dira espedientean. Bertan zehaztuko da ikasketa planeko zein irakasgai jotzen diren egindakotzat, eta zein diren aitortutako kredituei dagozkien jatorrizko irakasgaiak, honako xehetasun hauekin: haien tipologia eta kreditu kopurua, ikasleak zein kalifikazioarekin gainditu zituen, eta zein erakundetan egin zituen ikasketok.

Aitortutako kredituen tasak:

Baliozkotutako kredituen tasengatik ikasleek unibertsitateari ordaindu beharrekoa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasturte bakoitzerako zehaztutakoa izango da.

18. artikulua.– Kredituen transferentzia.

Kredituak transferitzea da UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean egindako ikasketa ofizialetan lortutako kredituak ikasleen espedientean sartzeari, baldin eta ikasleak titulu ofizialik lortu ez badu.

1.– Eraginak.

Ikasleak egindako ikasketen agiri akademiko ofizialetan jasoko dira UPV/EHUn edo beste unibertsitate batean ikasleak lehendik egindako ikasketa ofizialetan lortutako kredituak, baldin eta ikasleak haien bidez titulu ofizial bat lortu ez badu.

2.– Helburua.

Unibertsitateko titulazio bateko ikasketak bukatu gabe izanik beste titulazio bat hasi nahi duten ikasleei transferituko zaizkie.

3.– Tramitea.

Ikasleak espedientearen lekualdaketaren bidez matrikula egiten duenean transferituko dira, ofizioz, eta espedientean jasoko dira unibertsitate berean edo beste batean ikasketa ofizialen bidez ikasleak lortu dituen kreditu guztiak, betiere, ikasketa horien bidez ikasleak ez badu titulu ofizialik lortu.

Transferituriko kredituak 16. artikuluan zehaztutakoari jarraituz jasoko dira ikaslearen espedientean.

III. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA ETA KALIFIKAZIOAK

19. artikulua.– Ebaluazioa eta kalifikazio sistema.

1.– Ikasketa planeko gaietan ikasleak bereganatutako ikasketa maila kalifikatzeko, zenbakiak erabiliko dira (0tik eta 10era artekoak), hamartar bakarrarekin. Zenbakiez gain, letraz ere adierazi ahal izango dira kalifikazioak, modu honetara:

- a) 0,0 eta 4,9 artean: suspentso (S).
- b) 5,0 eta 6,9 artean: nahikoa (N).
- c) 7,0 eta 8,9 artean: oso ongi (O).
- d) 9,0 eta 10 artean: bikain (B).

Ohorezko matrikulak eman ahal izango dira, irakasgai bakoitzean hogeit hamar ikasleko edo hogeit hamar zatiki bakoitzeko bat; akta bakartzat hartuko da irakasgaiko ikasle guztiena, talde kopurua gora-behera.

Irakasgaiak ebaluatzeko irizpideak masterren justifikazio memorian azaltzen direnak izango dira, hau da, masterra egiaztatze onartu zirenak.

Masterreko batzorde akademikoak master amaierako ikaslerik onena aukeratu ahal izango du eta, aukeratuz gero, horren berri emango dio Master eta Doktoregoko Atalari.

2.– Irakasgaien aktetan adieraziko diren kalifikazioak sinatu egin beharko dituzte, nahitaez, irakasle arduradunak eta masterraren zuzendaritza akademikoa izan duen arduradunak. Aktek ez dute emendakin, zirriborro edo zuzenketa izan behar. Halakorik izanez gero, diligentziak egin beharko dira, lehen aipaturiko pertsonak beren-bereri sinatuak.

3.– Kalifikazioak GAUR aplikazioaren bidez argitaratuko dira, bai eta master ofizial bakoitzak adierazitako tokietan ere, eta agerian izan beharko dute zein egunetan argitaratu diren, arautegi honetako 19. artikuluan aipaturiko epeak zehazte aldera.

4.– Lanbide arautuetan jarduteko bidea ematen duten masterretan baldintza hauek aplikatuko dira:

Ikasleak sei ebaluazio deialdi izango ditu irakasgai bakoitzerako.

Ikasleak uko egin ahal izango dio ebaluazio deialdiari, eta deialdi hori ez zaio kontuan hartuko.

Masterreko batzorde akademikoa zehaztu beharko du nola egin behar zaien uko ebaluazio deialdiei.

Bosgarren, seigarren eta salbuespenezko deialdiak epaimahai batek ebaluatuko ditu, Gobernu Kontseiluak ezartzen dituen arauak jarraituz.

Ikastegian ikasleren bat badago bosgarren, seigarren edo salbuespenezko deialdian, aurreko paragrafoan adierazitako epaimahaia osatuko da, eta ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan argitaratuko da epaimahaiaren osaera, kideen izen eta guzti. Epaimahaia osatzean, irakasleak aurreko deialdietan zuzentzaile lanetan jardun gabeak izan daitezela zainduko da, ahal den neurrian.

Edozein irakasgaien sei deialdiak agortuta, ikasleak salbuespenezko deialdia eska dezake, UPV/EHUko errektoreari zuzendutako idatziaren bidez. Salbuespenezko deialdia emateari buruzko erabakia errektoreak hartuko du, kontuan hartuta ikaslearen espedientea eta beste gora-behera batzuk.

Irakasgai baterako deialdiak agortuz gero, ikasleak ezingo du unibertsitatean ordura arte egiten ari zen ikasketekin jarraitu.

Gainerako masterretako gaiak gainditzeko, deialdi bakarra egingo da ikasturte bakoitzeko, eta ez da egongo horretarako salbuespenik. Ikasleak, gehienez ere, hiru deialdi izango ditu gaia gainditzeko. «Aurkezteke» kalifikazioak deialdia galtzea ekarriko du. Masterreko gaiak gainditzeko, deialdi bakarra egingo da ikasturte bakoitzeko, eta ez da egongo horretarako salbuespenik. Ikasleak, gehienez ere, bi deialdi izango ditu gaia gainditzeko. «Aurkezteke» kalifikazioak deialdia galtzea ekarriko du.

Hala ere, ez zaio arau hori ezarriko ondoko egoeraren batean dagoen ikasleari:

Eskola aldian ikaslea gaixorik egon bada hiruhileko batean baino luzaragoan. Egoera hori behar bezala egiaztatuta beharko du.

Beste egoera larri batzuk.

5.– Ikasleak, lehenengo ikasturtean, matrikulatuta dituen kredituen % 15 gainditu behar ditu, gutxienez. Ez badu baldintza hori bete edo bi deialdiak agortu baditu irakasgaia gainditzeko, ezin izango du ikasketak horietan jarraitu titulazio horretan bi ikasturte matrikulatu gabe egon arte.

Aktak bete eta gero, masterraren ardura daukan ikastegiko idazkaritzara bidaliko dira hilabeteko epean.

20. artikulua.– Kalifikazioak berraztertzea.

Kalifikazioak berrikustea eskatzeko, erreklamazioa aurkeztuko zaio irakasgaia edo jarduera akademikoa eman duen irakasleari. Ondoren, beharrezkoa bada, masterreko batzorde akademikoak jardungo du.

Erreklamazioak ebatzi eta ikasleari horren berri emango zaio gehienez ere hilabeteko epean, erreklamazioa aurkeztutako egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Ikasleak gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio UPV/EHUko errektoreari masterreko batzorde akademikoak hartutako erabakiaren kontra, erabaki horren berri izan eta hilabeteko epean. Errektoreak txostena eskatuko dio UPV/EHUko Graduondoko Batzordeari, erreklamazioa ebazteko.

Errektorearen erabakia behin betikoa izango da eta administrazio bidea agortuko du.

IV. KAPITULUA

GRADUONDOKO TITULU OFIZIALAK ETA ZIURTAGIRIAK EMATEA

I. ATALA

TITULUAK EMATEA

21. artikulua.– Arau orokorra.

UPV/EHUko masterretako titulu ofizialak errektoreak emango ditu, eredu arautuari jarraiki, eta unibertsitateko Titulu Ofizialen Erregistroan jasotako dira.

22. artikulua.– Prozedura.

Tituluak eskatu beharko dira masterraren ardura daukan ikastegiko idazkaritzan aurkeztuko dira. Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

Eskaria, eredu arautuan.

NANaren edo pasaportearen fotokopia.

Kasuan kasuko tasak ordaindu direla egiaztatzen duen ordainagiria. Tasen salbuespenerako eskubidea duten ikasleen kasuan arautegi honetako 8 artikulua hartuko da kontuan.

Unibertsitateko masterra egiteko aukera eman dion tituluaren fotokopia erkatua edo fotokopia eta jatorrizkoa; betiere, agiri hori ez bazen unibertsitateko masterrarako matrikula egitean aurkeztu. Titulua UPV/EHU n lortutakoa izanez gero, ez da zertan aurkeztu.

Master titulu ofiziala eskuratzeko eskubideak ordainduta izanaren ziurtagiria emango die masterraren ardura duen ikastegiak ikasleei, eta ziurtagiri horrek tituluaren ondorio berberak izango ditu, titulua bera eman arte.

Tituluak ematea.

1.– Titulua, behin inprimatuta, ikasleak berak jaso beharko du masterraren ardura duen ikastegiko idazkaritzan. Ikasleak ezinezkoa badu bera joatea, baimena eman ahal izango dio beste bati (ahalorde notarialaren bidez) bere izenean titulua hartzeko.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa aldatzeke, interesatuak eskaria egin diezaioke idatziz masterraren ardura duen ikastegiko idazkaritzari bere etxetik gertuen dagoen bulego hauetakoren batera bidaltzeko titulua: Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzara, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzara, Arabako Campuseko Errektoreordetzara, probintziako Hezkuntza eta Zientzia Zuzendaritzara, Hezkuntza Bulegora edo Kontsuletzera.

2.– Tituluak jasotzeko onartua dagoen jardunbide bera aplikatuko da bikoiztuen kasuan.

II. ATALA

ZIURTAGIRIAK EMATEA

23. artikulua.– Ziurtagiriak eskatzea.

Egindako ikastaro eta mintegien ziurtagiriak masterraren ardura duen ikastegiko idazkaritzan eskatu beharko dira. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko agiriak UPV/EHUko web orrian eta masterraren ardura duen ikastegiak zehaztutako idazkaritzetan iragarriko da.

III. ATALA

PREZIO PUBLIKOAK

24. artikulua.– Ziurtagiri eta tituluak ematearren ordaindu beharreko prezio publikoak.

Graduondoko titulu ofizialak eta ziurtagiriak ematearren ordaindu beharreko tasak Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutakoak izango dira.

Tasa horiek eskariak aurkeztean UPV/EHUK adierazitako kontuetako batean ordaindu beharko dira.

V. KAPITULUA

GESTIO EKONOMIKOA

25. artikulua.– Organikoak irekitzeko tramiteak.

1.– Master eta Doktoregoko Atalak, jakinda master ofiziala irakatsi egingo dela, Organikoa irekitzeko eskatuko dio Kontabilitate Zerbitzuari, kasuan kasuko masterraren gastuak gestionatzeko.

Organiko hori titulazioaren ardura daukan organoak daukan Organikoaren menpe egongo da. Organo arduradun bat baino gehiago egonez gero, antolatzaileek erabakiko dute zein Organikoren menpe egongo den.

2.– Organikoaren lehen arduraduna master ofizialaren irakasle arduraduna izango da. Bigarren arduraduna masterraren ardura daukan saileko, ikastegiko edo institutuko zuzendaria izango da. Irakasle berberak betetzen baditu kargu biak, bigarren arduraduna graduondokoaren ardura duen organoko idazkaria izango da.

I. ATALA

DIRU SARREREN GESTIOA

26. artikulua.– Diru sarrerren aurrekontua gestionatzea.

Master ofizialen BGGei dirua emango zaie aurrekontutik, ezarriko diren parametroen arabera, masterraren gastu guztiei aurre egiteko. Ekitaldi ekonomikoan zehar kanpoko deialdietatik etor daitezkeen diru laguntzak masterretako diru sarrerren aurrekontuan sartuko dira.

27. artikulua.– Diru laguntzen gestioa.

Masterraren irakasle arduradunak hitzarmena egiten badu erakunde publiko edo pribaturen batekin diru laguntzak lortzeko, diru hori UPV/EHUren aurrekontuen kontuan sartzeko eskatuko dio. Ondoren, jakinaren gainean jarriko du masterraren ardura duen ikastegia, eta diru laguntza jasoko duela egiaztatzen dituen dokumentuak aurkeztuko dizkio. Masterraren ardura duen ikastegiak, dokumentuak aztertu ondoren, Kontabilitate Zerbitzura bidaliko ditu, diru laguntza kontabiliza dezaten eta esleipena egin dezaten.

II. ATALA

GASTUEN GESTIOA

28. artikulua.– Gastuen aurrekontua gestionatzea.

Master ofizialaren BGGaren aurrekontua masterreko arduradunek gestionatuko dute.

Master ofizialen irakaskuntzako gastuak guztiz ordaindu beharko dira master bakoitzak bere aurrekontuan jasoko duen diru kopuruarekin. Gastuen gestioa unibertsitatearen aurrekontuei buruzko arau orokorretara lotuko da, kontuan hartuta ondoko hauek:

a) Gastuak kasuan kasuko kontzeptura atxikiko dira, unibertsitatearen kontuen planaren arabera.

b) Ordainduko diren gehieneko kopuruak honako hauek izango dira:

1.– UPV/EHUtik kanpoko pertsoneri masterrean eskolak emateagatik: gehienez 125 euro orduko.

2.– Bidaiak, joan–etorriak eta mantenua justifikatzeko, berriz, aurrekontua gestionatzeko UPV/EHU indarrean egongo den arautegiak dioena beteko da.

3.– Erositako material inbentariagarria gastuen kasuan kasuko kontzeptuan kontabilizatu eta unibertsitatearen ondarean sartuko da. Horrexegatik, inbentario ofizialean agertu beharko da, arlo horretako arautegiak dioenez bat.

VI. KAPITULUA

INDARRALDIA ETA ESKUMENAK ESKUORDETZEA

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi hau UPV/EHUK berak antolatutako master guztiei ezarriko zaie. UPV/EHUK beste uni-bertsitate batzuekin batera antolatuko dituen programa ofizialen kasuan ere aplikatuko da arautegi hau baina, horrez gain, erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena hartuko da kontuan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Master ofizialetan aldaketarik egin nahi izanez gero, Graduondoko Batzordeak beren-beregi eman beharko du baimena, eta horretarako dauden izapide guztiak egin beharko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Arautegi hau 2014/15 ikasturtean sartuko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Graduondoko Batzordeari ahalmena ematen zaio arautegi hau garatzeko arau osagarriak eman ditzan, eta ikasturtero datak, egutegiak eta eranskinak egunera ditzan, Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen proposamenari jarraituz.

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko erretoreordearen gain uzten da arautegi hau ezartzean sor daitezkeen gorabeherak interpretatu eta ebazteko ahalmena.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Graduondoko Batzordearen ahalmena ematen zaio arautegi hau hurrengo ikasturteetarako egokitzeke.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira arautegi honekin bat ez datozen gainerako xedapen guztiak.